



ASTEASUKO KATEA JULIAN LIZARDI, KOJUENE ETA KARABELABERRI ERAIKINEN KALIFIKAZIOA ALDATZEKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO TXOSTENA

Asteasuko Udalak Julian Lizardi, Kojuene eta Karabelaberrri eraikinen kalifikazioa aldatzeko Arau Subsidiarioen Aldaketa puntuala bidali du, Bide Azpiegituretako Departamentuak nahitaezko txostena egin dezan, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak 94. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onetsia).

Julian Lizardi eta Kojuene eraikinen kalifikazioa aldatzea, zuzkidura edo ekipamendu komunitario izateari utz diezaioten eta bizitegi pribatu bihurtzeko, bai eta Karabelaberrri eraikinaren kalifikazioa aldatzea ere, bizitegi-industriatik ekipamendu komunitario gisara, erabilera horiek hartzeko eraikina handitzea ahalbidetuz.

Aldaketaren bi helburuek helburu bakar bati erantzuten diote: udal ekipamenduak, orain Julian Lizardi eta Kojuene eraikinen artean banatuta daudenak, eraikin bakar batean biltzea. Eraikin hori Karabelaberrriren trazaren gainean garatuko litzateke. Horri esker, iraunkortasun-irizpideetara joz, mantentze-kostuak murriztu, kudeaketa erraztu eta espazioa galtzea eta disfuncionaltasunak saihestu ahal izango lirateke. Bi eraikinak bizitegi pribatu bihurtuz gero, saldu ahal izango lirateke, etxebizitza berriak merkaturatuz eta, horrela, zuzkidura-eraikin berria finantzatzuz.

Hiru eraikinak hirigunean daude, foru errepide saretik aski urrun.

Agiria aztertu ondoren, Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez, ez dugu eragozpenik ikusten onespena emateko.

INFORME A LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS PARA EL CAMBIO DE CALIFICACIÓN DE LOS EDIFICIOS JULIAN LIZARDI, KOJUENE Y KARABELABERRI DE ASTEASU

El Ayuntamiento de Asteasu ha enviado la Modificación puntual de las Normas Subsidiarias para el cambio de calificación de los edificios Julian Lizardi, Kojuene y Karabelaberrri, para que el Departamento de Infraestructuras Viarias emita el informe preceptivo del artículo 94 del Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral Normativo 1/2006 de 6 de junio.

El objetivo es cambiar la calificación de los edificios Julian Lizardi y Kojuene de Asteasu, para que dejen de ser dotacionales o de equipamiento comunitario y pasen a ser residenciales privados, así como cambiar la calificación del edificio Karabelaberrri de industrial-residencial a dotacional y equipamiento comunitario, permitiendo la ampliación de la edificación para acoger esos usos.

Los dos objetivos de la modificación responden a un único propósito: concentrar los equipamientos municipales, ahora repartidos entre los edificios Julian Lizardi y Kojuene, en un único edificio con cabida para ellos, que se desarrollaría sobre la traza de Karabelaberrri. Esto permitiría, acudiendo a criterios de sostenibilidad, reducir costos de mantenimiento, facilitar la gestión y evitar pérdidas de espacio y disfuncionalidades. La conversión de los dos edificios en residencial privado permitiría su venta, poniendo en el mercado nuevas viviendas y financiando de esta manera el nuevo edificio dotacional.

Los tres edificios se encuentran en el casco urbano, suficientemente alejados de la red Foral de carreteras.

Analizado el documento, no existe inconveniente en lo que respecta a las competencias de este Departamento para su aprobación.

ASTEASUKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ASTEASU



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

OFI-C-2022-0525.pdf